


EMAKUMEAK BLAI

- behin behineko izenburua -



Ane Zulaika Aranburu

Emakumeak Blai artxiboetan oinarritutako sorkuntza proiektu bat da. Euskal emakumeek iraganean itsasoarekin zuten harremana erakusten duen ikerketa fase batetik abiatuko da, eta berreskuratuko materialekin ikus-entzunezko pieza bat osatuko da euskaraz.

Ikusle bakoitzak emakumeek itsasoarekin izan dugun harreman historiko, sozial eta kulturalari buruz gogoeta egin dezan, edota itsasoa poesia gisa ulertu dezan.

HELBURU ZEHATZAK

- o Itsasoarekin harreman estua izan zuten **emakumeen memoria errekuperatzea** ikerketa lan baten bidez. Artxibo zinematografiko eta argazkien arrastoetatik abiatuko naiz emakumeen testigantzak jasotzeko. Euskal kostaldean itsasoa bizitzeko hainbat era egon dira (ogibide gisa, kirol moduan, aisialdi bezala, etab.) eta alor honetan, protagonismorik izan ez duten emakumeen istorioak bildu nahi ditut.
- o **Istorio hauek ikusaraztea** laburmetraia baten bidez. Iraganeko artxibo amateurak eta egungo grabaketak nahastuz entsegu zinematografiko bat osatuko dut. Film hau euskaraz egingo da.



HELBURU OROKORRAK

- o Film labur hau **osatzea** eta ondorioz **emakumeek itsasoarekin izandako lotura islatzea** da asmoa. Artxibo berri bat egongo da eskuragarri emakumeari, euskarari, ondareari garrantzia ematen dioten espazioetan gizarteratu ahal izango dena.
- o Herritarren **hausnarketa, elkarrizketa, gogoeta eta begirada suspertu** nahi da, itsasoarekiko izan dugun eta mantendu nahi dugun lotura historiko, sozial eta kulturala hizpide izanik.

Azkenik, baldintzei jarraituta, lan prozesu honen **emaitzak eta hausnarketak** biltzen dituen artikulua bat idatziko dut RIEVen argitaratu ahal izateko.

TESTUINGURUA

Euskal Herriarentzat, baliabideetan pobrea den lurralde batetik ateratzeko aukera izan da itsasoa. Euskaldunak laster ireki ziren itsas merkataritzara, eta ozeanoak zeharkatu zituzten baleen bila. Istorio horien errepresentazioetan gizonak ageri dira beti. Eta zertan ari ziren emakumeak bitartean? Mendeetan zehar, euskal emakumeek ere (saregileak, arrain-saltzaileak, errekaradariak, kontserbagileak...) itsasoa bizi izan dute beren etxearen hedadura eta beren izatearen funtsezko zati baten gisa; lanean bezainbeste aisiali edo kirolean ere.

Zinema arloan, Gotzon Elorza, 50eko hamarkadaren amaieran, euskarazko zinemaren esperientzia bat eraikitzen saiatu zen. Erbestean, euskara hiltzen ez uzteko eta hizkuntzak kulturarako tresna gisa balio zuela erakusteko asmoz, 4 film labur sortu zituen. Lehenengoan, Ereagatik Matxitxakora (1958), itsasoa eta Euskal Kostaldea filmatzen du. Itsasoak etengabeko presentzia izan du euskal zinema amateur askoren lanetan ikusi daitekeen bezala: Julien Julia, Pierre Bestiou, Angel Lerma...

Baina non egon daitezke emakumeak?

Haien begiradak?

Irudi horietan agertzen diren emakumeak ez al dira protagonistak?

Itsasoari begiratu eta entzutea film bat ikustea bezala da niretzat. Efektu hipnotizatzailea du, erakarri eta harrapatu egiten zaitu.

Itsasoarekin, urarekin, kostaldearekin dudan harremana estua, hunkigarria eta sortzailea da. Nire haurtzarora olatu artean pasatu dut, igerian, arraunean, sentitzen. Itsasoak inspiratzen nau, mugitzen nau, askatasuna ematen dit. Erronka eta kirola ikusten ditut bertan, lana eta saria, ahalegina eta mina, historia, memoria, kultura, tradizioa, berrikuntza ... eta, batez ere, poesia eta inspirazioa.

Nik bezala, beste emakume askok ere itsasoarekin harreman estua izan dute, beren bizitzaren parte izan da. Artxiboetan islatuta ikusi daitekeen emozio hori partekatu nahi dut, emakume horiek izan daitezen protagonistak.

DESKRIBAPENA

Pieza honek ahaztutako artxibo amateur anitz berreskuratu eta balorean jarriko ditu itsasoa beren bizitzaren parte zen emakumeak protagonistatzat hartuz. Iragani harreta hartzeko intentziotik ikerketa lan bat burutuko, begirada anitzak behatu, bestelako ahotsak entzun, testigantzak jaso, artxiboak errekuperatu eta horrela emakumeen 60-80 urteetan itsasoarekin zuten harremana irudikatu. Azkenik, jasotakoa partekatuko da hausnarketa berriak sortzeko.

"amateur"

maitaletik izatetik dator, maitasunagatik egiten duen norbait. Askatasun artistikoaren, fisikoaren eta denborazkoaren garrantzia azpimarratzen du *Maya Deren* zinegileak.

Intentzio hau Elías Querejeta Zine Eskolan artxibo zinematografikoa graduondokoan egindako hausnarketa batetik dator.

"Zinema Artisauak: Euskal Zinema Amateurrak" ikerketa taldearen partaide izateaz gain, nire hipotesi pertsonalaren helburu nagusia euskal kulturaren oinarria izandako ondare zinematografikoa babestea, zaharberritzea, eta herritarrei hurbiltzea izan zen.

Horretarako, ikerketa lan baten ondorioz, 60-70 hamarkadan euskaldunok itsasoarekin erlazionatzeko modu anitz erakusten zituzten artxibo amateurrak bildu nituen. Baina, irudi guzti horiek gizonetzakoak begiradatik jasota zeuden. Hortik dator lan honen oinarria.

Non daude emakume horien testigantzak?



EMAKUMEAK BLAI

egitasmoak erantzun-bideak jorratu nahi ditu.